

mente, a los hombres y al ganado. Les daba lo mismo. Les pagaban para eso, y además atacaban impulsados por santas convicciones. Yo corrí otro poco y me puse a observar. De repente, alguien me cogió una mano y me empujó a un agujero; en pleno mercado habían perforado el suelo. Conducía a las entrañas de la tierra..., pero sólo era un cráter abierto por un obús... Ahí yacía yo, extendido... entre el ruido y el humo. Ya no existía el cielo...

Por fin cesó el estruendo. Los aviadores se habían alejado. Una mano me levantó, sacándome del cráter. Dos seres estábamos aún de pie en el mercado, otro y yo. El torbellino... como ciego y sordo. El silencio aquel tremendo alboroto ensordecedor... Tan quieto estaba todo, tan horriblemente quieto, que era cien veces más pavoroso. Además, fragmentos de automóviles en los techos, techados en los jardines, árboles que ardían, ventanas rotas, casas hendidas por una bomba, abiertas desde la cima hasta el sótano... Y charcos de sangre, oscuras lagunas de sangre negruzca. Y los muertos. Tan desvergonzada es la muerte que borra todos los rostros y los desnuda, despojándolos de su única vestimenta que es la piel... Si Dios experimentase sentimientos humanos tendría que apartar la vista de los muertos. ¿No le da vergüenza al ver a los muertos tan desnudos? ¡Y ese gemido en las casas que ardían! Y los muertos en todas partes. Perros, gatos, ganado, hombres, mujeres, niños... tendidos, acuclinados, sentados... todos muertos. ¡Y los heridos! ¡Cómo gritaban! A los seres humanos nada es capaz de asustarlos...

Más tarde, ya en París, leí en ciertos diarios que no los aviadores, sino los anarquistas, eran los que habían incendiado a Guernica, puesto fuego a las casas, fusilado a las monjas y dado muerte a los niños... Y hay gente que lee eso. Y también hay gente que lo cree. ¡Y, por lo visto, es posible cometer el mal y negarlo! Y los ladrones forman filas a ambos lados de la calle, señalando con el dedo a los inocentes. Todo el mundo sabe que los criminales suelen proceder de esta manera. Primero asesinan y luego mienten. ¿Es permitido hacer esto? ¡Señor! ¡Mentían! ¡Mentían!

“Guernica vive todavía. El espíritu es invulnerable a la acción de metralla.”

BONIFACIO DE ECHEGARAY,
4 de mayo de 1937

“Guernica, símbolo de las libertades de la patria y símbolo también de la ferocidad del

fascismo internacional, no puede morir, porque Euzkadi no morirá.”

JOSE DE LABAURIA,
maestro de Guernica, mayo 1938

“Yo soy un cura vasco, que en momento de dolor y de desesperación busca un gesto de compasión hacia mi pueblo y mi patria Euzkadi.”

P. M. ARRONATEGUI,
párroco de la Iglesia de Santa María de Guernica

BIAR ERE GERNIKA

TXILLARDEGI

Mende askotan zear Gernika izan da, bere bazarren bidez Euzkadi'ko Uriburua. Orrela, eun urtez kontra gorria jasan arren, bizirik jaso dugu gaurko gazteok Gernika'ren itzala.

Orain, bere birrintze ikaragarriaren ogeitabostgarren urteburu ontan, ondo dator Gernika'ren zantzua entzun-araztea.

ASPALDI, ots, Euskalerrriak bere Lege Zarrak galdu zituen arteraño, zer izan zan Gernika?

Erritasunaren aldetik, Erriaren erantzea. Beste era batera esanda: Erriak berak agintzen zuen Euzkadi'n. Ez Elizak (España'ko jarraipide kaltegarria mugan ikusi arren), ez Gudarozteak eta militarkeriak (gure auzoen joeren kontra ere), ezpaitzagoen Euzkadi'n militar-klaserik (Beatrik!...). Eta ez jauntxoak eta Aundikiak, gure Bazarrek oso maiz burrukatzen baitzuten auen nagusikerien aurka. Demokraziaren aldetik, beraz, denborari dagozkion diferentziak aintzat arturik; noski, Euzkadi bere semeak ardentturik, noski, Euzkadi bere semeak ardentzen zuten, erriz erri azkatasunik aundienean egiazko ordezarrentzen zuten, erriz erri azkatasunik aundienean egiazko ordezkariak aukeratuta.

Abertzaletasunaren aldetik, ordea (eta ez da gure asmoa ziorik sakonenak aztertzea, ots, Sozio-olojiak irakats zitzaigukeanek) utsa. Baziran, egia esan, euskaltasunaren aztarna batzuk, itsak eta

eskasak geienetan. Piskanaka piskanaka, euskaldunak gere buruaren jabe nai genuen iraundu (karlisten gerratean ondo agirian gelditu zan au), baiñan zertarako ez da ikusten. Gernika'k eta Ustari-tze'k, Araba'k eta Zuberoak, etzuten alkarren berririk izaten. Euzkadi benetan zaituta zegoen: naparrak gipuzkoarren kontra, eta xuberotarrak manexen kontra.

Ortara, gure Lege Zaarren galtzea iritxi zitzaigunean, Demokraziaren aldeko oitura edo joera bat bagenuen; baiña abertzaletasunaren arrastorik ez.

Españolen eta frantsesen jokabidea beraz garbi agertu zan: eta euskaldunen batasunik ezari eldu zioten. Orrela, karlista-gerrateetan, eta geroago ere, bere indarrak aundienak euskaldunok zatitzearen aldekoak izan ziran. Eta, noski, gure euskaltasunaren kontra erritasuna alde guztietatik lardas-katuz eta atzerrituz.

* * *

Karlista-gerrate izugarriak, gure zatitzea, gure abertzaletasunaren falta: orra or España'k bere alde zeukana.

Arana Goiri'k zorrotz Euzkadi'ren egoerak aztertu zituenean, bereala igarri zuen: Euzkadi'ri abertzaletasuna falta zitzaion.

Orrela, jelkideen ereintzaren ondoren, (ontzat eman ezin ditzakegun jokabide batzuekin naastuta) abertzaletasunaren leenengo zantzuak entzun ziran. Egia aitortu bear da: leenengo aldiz!

1931, eko urtea etorri zan, eta 1936, ekoa. Irakurleak badaki gaiñerakoa. Urrillaren 7 an, gerra betean, bestela eziñik, amorematen zuen Errepublikak. Eta, berriz, ere, Gernika'k biltzen zituen bertara, Euzkadi'ko agintariak.

Ikus ditzagun, lipar batez bederen.

1931 ezkerotzik, abertzaleak, Agirre gaztea buru, Euzkadi guztiko ordezkartza bat biltzen saiatu ziran. Badirudi Naparroak bakarrik utsegin ziela, Olazabal eta sasi-karlisten erruarrengatik. Egia esan, ala esan oi da geienetan: "Tamala! Naparroa falta zan bakarrik!"

Baiñan au, egia esan, etzan egia.

Euzkadi'ko langilleak ESPAÑA-ko partiduetan sartuak ziran. Zergatik? Egia berriz ere aitortzeko, jelkideak etzuten sozial-giarrik. Gerra aurreko abertzaletasuna ondo zegoen (eman dezagun) burges-euskaldunentzat. Euskaldun langilleentzat, ordea, utsa zan. Euskaldun langilleari bost ajola zitzaion (eta "zaio") agintariz aldatzea, beretzat eta bere semeentzat izango ez ba zuen kapitalistaren limosnatxoa besterik... Euzko Ekintza eta E.L.A., zio batzuegatik, etziran gauza izan langilleen eiña bestelakotu zedin.

Ez dezagun esan, arren, P.S.O.E. koak Euzko Jaurlaritzari men-egiten ziotela; eta orrelakoak. Abertzaleak indar aundiegia zuten 1936, ean, berakin ez kontatzeko. Orrela, Franco altxa zanean, español-sozialistak (Euzkadi'ko langilleen artean nagusi, abertzaleon erruarrengatik) FRANCO ALTXA ZALAKO (eta ez milla aldiz abertzaletasuna-rengatik) Euzko Jaurlaritzan sartu ziran.

Gernika'n bildu ziranak, beraz, obetoxe zeuden aspaldian baiña. Alabaiñan, zenbait aldetatik bakarrik. Langilleak ezpaiztuten bear zuten ordezkartzarik. Roosevelt'ek etzion kapitalismoari utzi, eta komunista biurtu, Stalin'ekin alkarrartu zanean. Gure langilleak agintzen zituzten ESPAÑA-NOLAK, era berean, etziran geiago "abertzaletu". Baiña Franco aurrean zegoen: orra beren "abertzaletasuna"... Eta orra beraz Gernika artako akatsa: langilleak etzuten Gernika'ko artan siñisten. Euzkadi'ko agintaritzat etzan aspaldikoa bezin egiazkoa: egoera berria zegoen Euzkadi'n. Eta atzera begiratzea etzan aski.

Dana dala, karlista-gerrateetan bezela, beste gerra baten bidez debekatu zan Gernika artako jarraitzapena.

Eta gaur, 25 urte pasa ondoren, Gernika ixillik dago beti. Zai.

Baiña Gernika ez da il. Eta ia ikus ditezke biar-ko batzarrak.

Asko ikasi dugu.

1876 ean España'ko "EZKERTARRAK" ixillarazi ginduzten.

1937 an España'ko ESKUBITARRAK.

Garbi daukagu etsaia, español-erriaren kontra burrukatu nai ez ba dugu ere. Etsai orrek agirian darama izena: ESPAÑA. España'ko Estaduak bakarrik? Españolak dute itza.

Eta garbi ere gure akatsa. Lege Zaarretako denbora pasa da. Gaurko euskaldun jendea ez da, geienez, nekazaria, industrialia baizik. Lege Zaarrak ondo zeuden. Gaur alere, gogo artan berean, Lege Berriak bear ditugu. Eta auetan, antziñako gogoari eutsi nai ba dio langille-jendeari eta egiazko demokraziari eldu bear diogu. Gernika ezin ditzake berriz bildu klase bateko euskaldunak bakarrik. Gernika EUSKALDUN GUZIAK bildu bear ditu, aspaldian bezela. Eta aspaldian bezela, erriaren alde, eta elizkeri, militarkeri eta nagusikeri guzien kontra.

"Los que destruyeron Guernica no tienen derecho a hablar de patria."

FRANCO,

discurso del 18 de julio de 1938